Ebaluatutako eskaerak puntu gehien dituenetik gutxien dituenera eta jarduera sektorearen arabera ordenatuko dira. Puntu gehien lortu dituztenak Mintegira sartzeko proposamena egingo da, eta gainerakoak itxaron zerrendan sartuko dira, hala badagokio.

Las solicitudes evaluadas se ordenarán de mayor a menor puntuación y por sector de actividad, proponiéndose el acceso al Vivero de aquellas que hayan obtenido la mayor puntuación, integrándose las restantes, en su caso, en la lista de espera.

Batzordeak aintzat hartuko du sektorearen tipologia, proiektuak eta enpresak mintegiko egoitzetan kokatzeari begira.

La Comisión tendrá en cuenta la tipología del sector para la ubicación de los proyectos y empresas en las sedes del vivero.

Bi eskaeren edo gehiagoren artean berdinketa egonez gero, *produktua/zerbitzua* atalean lortutako puntuazioa hartuko da irizpidetzat. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, *taldea* atalean lortutako puntuazioa begiratuko da. Hala ere, berdinketa badago, eskaerak iritsi diren ordena erabiliko da irizpide gisa.

En el caso de que existiera empate entre dos o más solicitudes, prevalecerá la puntuación obtenida en el apartado de *producto/servicio*. Si tras aplicar este criterio el empate persiste se atenderá a la puntuación obtenida en el apartado *equipo*; si tras ello el empate se mantiene, se atenderá al orden de llegada de las solicitudes.

Horrez gain, 12.1a) atalean aipatutako egonaldia igaro ondoren Mintegirako sarrera eskatzen duten inkubazio aurreko faseko sustatzaileek lehentasuna izango dute, zuzenean inkubazio faserako eskaera aurkezten dutenekin alderatuta.

Asimismo, aquellas personas promotoras en fase de preincubación que una vez transcurrido el plazo de estancia al que se refiere el apartado 12.1a) soliciten el acceso al Vivero como promotores/as en fase de incubación, tendrán prioridad sobre aquellas que se presenten directamente a la fase de incubación.

## 10.- BAIMENAREN EBAZPENA ETA EREMUA ENPRESAREN ESKU UZTEA

## 10.- RESOLUCIÓN PARA LA AUTORIZACIÓN Y PUESTA A DISPOSICIÓN

Ebaluazioa egin ondoren, Batzordeak ebazpena egiteko proposamena egingo dio gerenteari, bilkura egin eta gehienez 10 eguneko epean.

Una vez realizada la evaluación, y en el plazo máximo de 10 días hábiles desde la celebración de la reunión, la Comisión elevará su propuesta al/a la Gerente para su resolución.

Mintegiko eremuen erabilera baimenduko duen ebazpena Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera egingo da.

La resolución que autorice el uso del espacio en el Vivero se ajustará a lo dispuesto en el Texto Refundido de la Ley de Patrimonio de Euskadi.

Ebazpenean, Mintegiaren erabileraren helburua, iraupena eta mugak zehaztuko dira, eta ikuskapenerako eta zaintzarako ahalmen administratiboak erantsita izango ditu. Baimenak

Asimismo, en ella se determinarán el objeto, duración y límites, sin que en ningún caso pueda otorgarse por tiempo indefinido, y llevará anexas

ezin izango du mugagabea izan.

las facultades administrativas de inspección y vigilancia.

Honako erabaki honen aurka, administrazio bidea agortzen ez duelarik, berori jaso eta hilabetearen epean jarri ahal izango da goranzko errekurtsoa errektorearen aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluen arabera eta UPV/EHUren estatutuetako 181.1m) artikuluari dagokionean.

Contra esta resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante la Rectora, en el plazo de un mes a partir de su recepción, según establecen los artículos 121 y 122 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en relación con el artículo 181.1 m) de los Estatutos de la UPV/EHU.

Baimenaren ebazpena jakinarazi ondoren, UPV/EHUk baimendutako enpresaren esku utziko du dagokion eremua. Esleipena bi alderdiek dagokion entrega akta sinatuta egingo da.

Notificada la resolución de autorización, la UPV/EHU pondrá a disposición de la empresa autorizada el espacio que le haya sido asignado mediante la suscripción por ambas partes del correspondiente acta de entrega.

## 11.- ITXARON ZERRENDA

Eskatutako gutxieneko puntuazioa lortuta ere, une horretan eremurik libre ez dagoelako Mintegira sartu gabe gelditu diren eskaerak itxaronzerrenda batean sartuko dira.

Itxaronzerrendan ere eskaerak puntu gehien lortu dituztenetatik gutxien lortu dituztenetara ordenatuko dira, jarduera sektorearen arabera sailkatuta. Hala, eremuren bat libre gelditzen denean, puntuazio handiena lortu duen sustatzaileari eskainiko zaio. Hark hiru eguneko epea izango du eskaintza onartzen duen edo ez adierazteko. Epe horretan ezer adierazten ez badu, eskaerari uko egiten duela esan nahiko du, eta itxaron zerrendatik kanpo geldituko da. Orduan, zerrendan puntuazio handiena duen hurrengo eskaerari egingo zaio eskaintza.

Itxaron zerrendak urte natural bateko indarraldia izango du, eta horretan sartutako kideek bertan jarraitzeko asmoa dutela ulertuko da, amaitu baino hilabete lehenago gutxienez zerrendan ez jarraitzeko asmoa idatziz jakinarazi ezean.

## 11.- LISTA DE ESPERA

Las solicitudes que, habiendo alcanzado la puntuación mínima exigida, no puedan acceder al Vivero por falta de espacios disponibles en ese momento, se incorporarán a una lista de espera.

En la lista de espera, las solicitudes se ordenarán igualmente por orden de mayor a menor puntuación, clasificadas por sector de actividad, de manera que en el momento en que quede disponible algún espacio, éste será ofrecido a la de mayor puntuación, debiendo indicar expresamente en el plazo de tres días si acepta o no la oferta. Transcurrido dicho plazo sin haberse pronunciado, se entenderá que desiste de su solicitud, siendo ésta excluida de la lista de espera y pasando a ofrecerse el espacio a la siguiente de mayor puntuación.

La vigencia de la lista de espera será de un año natural, y se entenderá que sus integrantes desean continuar en ella, salvo que, en el plazo mínimo de un mes antes de su finalización, se comunique por escrito el deseo de no continuar.

## 12.- EGONALDIA

## 12.- ESTANCIA

**12.1.- Egonaldiaren iraupena**

**a)** Inkubazio aurreko fasean dauden sustatzaileak: gehienez 6 hilabete.

**b)** Inkubazio fasean dauden enpresak: gehienez 4 urte.

9.2 ataleko azken paragrafoan zehaztutako kasuetarako, bi faseak elkartuta igarotzen den denborak ezin izango du lau urte baino gehiagokoa izan.

Garatzen ari den enpresa-proiektuak beste edozein enpresa-mintegitan egonaldiak egin baditu, dela inkubazio aurreko fasean, dela inkubazio-fasean, denbora-tarte horiek ondorio guztietarako zenbatuko dira.

Beren egonaldia luzatu nahi duten enpresa baimendutakoek idatzizko eskaera egin beharko dute, gutxienez egonaldia amaitu baino hilabete lehenago; betiere, ezarritako gehienezko aldia igaro ez bada. UPV/EHUri dagokio luzapen horiek onartzeko erabakia hartzea; horretarako, 16. puntuan zehaztutako txostenak eta segimendu bilkurak hartuko ditu oinarritzat. Dena den, luzapena onartzeko, nahitaezkoa izango da enpresak baimen ebazpenaren arabera dagozkion betebeharrak beteta izatea.

UPV/EHUk ahalik eta azkarren hartuko du eskaerari dagokion ebazpena, Ebaluazio Batzordeak proposamena egin ondoren.

**12.2.- Bermeak eratzea eta Mintegira sartzeko epea**

Baimendutako enpresak esleitu dioten eremua erabili ahal izateko, bi hilabeteko zenbatekoari dagokion fidantza edo abal bat ordaindu beharko dio UPV/EHUri, bi alderdiek entrega akta sinatu aurretik.

**12.1.- Duración de la estancia:**

**a)** Personas promotoras en fase de preincubación: máximo 6 meses.

**b)** Empresas en fase de incubación: máximo 4 años.

Para el supuesto contemplado en el último párrafo del apartado 9.2, en ningún caso el periodo de estancia acumulado entre las dos fases, podrá superar el plazo máximo de cuatro años.

Si el proyecto de empresa en desarrollo hubiese ya disfrutado de estancias en cualquier otro Vivero de empresas, bien sea en fase de preincubación o en la de incubación, dichos periodos de tiempo serán computados a todos los efectos.

Las empresas autorizadas que deseen prorrogar su estancia, siempre que no hayan agotado el período máximo establecido, deberán solicitarlo por escrito con una antelación mínima de un mes al de su finalización. La decisión sobre la concesión de cada una de las prórrogas será potestad de la UPV/EHU, que se basará en los informes y encuentros de seguimiento a los que se refiere el punto 16. No obstante, para la concesión de la misma, será imprescindible que la empresa esté al corriente en el cumplimiento de las obligaciones que le corresponden conforme la resolución de autorización.

La UPV/EHU resolverá la solicitud a la mayor brevedad posible, previa propuesta de la Comisión de Evaluación.

**12.2.- Constitución de garantías y plazo para la ocupación**

Para la puesta a disposición del espacio asignado a favor de la empresa autorizada y con carácter previo a la suscripción por las partes del acta de entrega, la empresa habrá de constituir a favor de la UPV/EHU una fianza o aval por importe de dos mensualidades.

Baimendutako enpresak Kontabilitate Zerbitzuak horretarako dituen kontuetan ordaindu beharko du zenbateko hori.

La empresa autorizada, deberá abonar la misma en las cuentas que el Servicio de Contabilidad tenga habilitadas a tal fin.

Bermea Unibertsitateak hori baliogabetzeko baimena eman arte egongo da indarrean. Enpresak instalazioak uzten dituen unetik, Unibertsitateak hamabost eguneko epea izango du egokiak iruditzen zaizkion alegazioak egiteko. Aldi horretan alegaziorik egiten ez badu, enpresari bermea itzuliko zaio.

Dicha garantía quedará constituida hasta el momento en el que la Universidad autorice su cancelación, estableciéndose un plazo de quince días desde el abandono de las instalaciones para que la Universidad realice las alegaciones que considere oportunas. Transcurrido dicho periodo sin que se haya realizado alegación alguna, se procederá a su devolución.

Entrega akta sinatzen duten egunetik kontatzen hasita, enpresak gehienez bi hilabeteko epea izango du Mintegian instalatzeko eta esleitutako eremuan sartzeko.

A partir de la fecha de suscripción del acta de entrega, la empresa autorizada dispondrá de un plazo máximo de dos meses para instalarse y ocupar el espacio asignado en el Vivero.

Justifikatutako arrazoirik gabe, epe horretan enpresa dagokion eremuan sartzen ez bada, bere jarduerarekin hasten ez bada eta/edo bermerik ordaintzen ez badu, emandako baimena automatikoki deuseztatu ahal izango da.

Por el contrario, y salvo causa justificada, la no ocupación e inicio de la actividad en dicho plazo, y/o la no constitución de garantía, será causa automática para la extinción de la autorización concedida.

**12.3.- Bertan behera uztea**

**12.3.- Abandono**

Baimena deuseztatzen bada, horretarako arrazoia edozein izanda ere, enpresak Mintegia utzi eta Unibertsitateari esleitutako eremua itzuli beharko dio, gehienez hilabeteko epean eta jasotako egoera berean.

Extinguida la autorización, y con independencia de la causa por la que se extinga, la empresa estará obligada a abandonar y devolver a la Universidad el espacio asignado en el plazo máximo de un mes, y en el mismo estado en el que le fue entregado.

Gainera, eremua hutsik itzuli beharko da. Bertan ondasunen bat geldituz gero, enpresa baimenduak horien jabetzari uko egiten diola eta UPV/EHUrentzat uzten dituela ulertuko da.

Asimismo, el espacio deberá devolverse libre y totalmente desocupado, entendiéndose que la empresa autorizada renuncia, a favor de la UPV/EHU, a la propiedad y posesión, de cuantos bienes quedaran en el mismo en el momento de la devolución.

Baimena bertan behera gelditzeak ez dio kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik emango enpresa baimenduari. Gainera, esleitutako eremutik atera eta UPV/EHUren esku utzi arte, dagokion tasa ordaintzen jarraitu beharko du, lanerako erabiltzen ariko balitz bezala.

En ningún caso la extinción de la autorización comportará derecho de indemnización alguno a favor de la empresa autorizada, y en tanto la misma no abandone y ponga a disposición de la UPV/EHU el espacio asignado, deberá abonar la tasa correspondiente como si lo estuviera usando efectivamente.

Enpresak Mintegia ezarritako epearen barnean

Además de la tasa correspondiente, la empresa

uzten ez badu, dagokion tasaz gain, eguneko hirurogei euro (60 €) ordaindu beharko dizkio UPV/EHUri bertatik joan arte, zigor klausula gisa eta sorraraz ditzakeen kalte-galeren ordain gisa.

obligada a abandonar el Vivero que no lo haga en el plazo establecido, deberá abonar a la UPV/EHU hasta que se produzca el efectivo desalojo la cantidad de sesenta euros diarios (60 €/día) en concepto de cláusula penal y responder de cuantos daños y perjuicios ocasione.

Enpresa baimenduak ez du ordainik jasoko bere egonaldian zehar lokalean egindako hobekuntzengatik. Hobekuntza horiek UPV/EHUrentzat uzteko, Unibertsitatearen baimen zehatza beharko du.

En ningún caso la empresa autorizada recibirá compensación alguna por las mejoras que haya realizado en los locales durante su estancia, y para poder dejar esas mejoras en beneficio de la UPV/EHU, deberá contar con la aprobación expresa por parte de ésta.

**12.4.- Borondatezko ukoa**

Emandako egonaldia amaitu baino lehen lokal baimenduak erabiltzeari uko egitea erabakitzen duten enpresek idatziz jakinarazi beharko dute, instalazioak benetan utzi baino 30 egun lehenago gutxienez; erabakia arrazoitu egin beharko da.

INIZIA enpresen mintegian egoteari borondatez uko egiten dioten enpresek ezin izango dute berriro bertan egotea eskatu.

**12.4.- Renuncia Voluntaria**

Las empresas que decidan renunciar al uso de los locales autorizados antes de que expire el periodo de estancia concedido, deberán comunicarlo por escrito con una antelación mínima de 30 días previos al abandono efectivo de las instalaciones, motivando su decisión.

Las empresas que renuncien voluntariamente al Vivero de empresas INIZIA no podrán volver solicitar su reincorporación al mismo.

## 13.- TASAREN ORDAINKETA

Mintegia barne hartzen duten Lascaray Ikergunearen eta Gasteizko Ingeniaritza Eskolaren izaera juridikoa kontuan hartuta eta Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginari jarraituz, enpresa baimenduak tasa bat ordaindu beharko du, kontraprestazio gisa.

Tasen zenbatekoa, fasearen eta esleitutako eremuaren araberakoa, IV. eranskinean dago zehaztuta, baita Lascaray ikergunearen eremu komunetara sartzeko tasak ere (V. eranskina).

Zenbatekoa Kontabilitate Zerbitzuak horretarako dituen kontuetan ordaindu beharko da.

## 13.- PAGO DE LA TASA

De acuerdo con la naturaleza jurídica tanto del Centro de Investigación Lascaray Ikergunea como de la Escuela de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz en los que se ubica el Vivero, la empresa autorizada, conforme el Texto Refundido de la Ley de Patrimonio de Euskadi, deberá satisfacer en concepto de contraprestación, el pago de una tasa.

El importe de las tasas en función de la fase y espacio asignado se detalla en el Anexo IV, así como las tasas de acceso a los espacios comunes de investigación del Lascaray (Anexo V).

La tasa será abonada en las cuentas que el Servicio de Contabilidad tenga habilitadas a ese fin.

## 14.- MINTEGIKO EREMUEN ERABILERA

Baimendutako enpresak Mintegiaren barneko funtzionamendu araudian ezarritakoa errespetatu beharko du.

Zehazki, esleitzen zaizkion instalazioak eta ekipamendua arduraz zaindu eta erabili beharko ditu, eta bere lana Mintegiko edo zentroko gainerako erabiltzaileei eragozpenik edo trabarik sortu gabe egin beharko du.

Bulegoak eta ekintzaileen eremua:

- Baimendutako enpresak esleitu dioten eremua hasiera batean esleipenaren helburu den proiektua edo jarduera gauzatzeko erabili beharko du, etenik gabe eta era jarraituan. Jarduera eten egin dela edo jarraitua ez dela ulertuko da justifikatutako arrazoirik gabe hiru hilabete baino gehiagoko aldi batez gelditu edo bertan behera uzten bada.

- Esleitutako eremua, apaingarriek, osagarriek

## 14.- USO DE LOS ESPACIOS DEL VIVERO

La empresa autorizada deberá estar a lo dispuesto en la normativa de funcionamiento interno del Vivero.

En concreto, deberá conservar y utilizar con la debida diligencia las instalaciones y equipamiento que se le asigne, así como desarrollar su actividad sin ocasionar molestias o incomodidades al resto de usuarios del vivero o del Centro.

Despachos y zona de emprendedores:

- La empresa autorizada está obligada a destinar el espacio asignado al desarrollo del proyecto o actividad para la cual le ha sido asignado, y a hacerlo de forma continua y permanente. Se considera que la actividad deja de ser continua y permanente, cuando la misma, sin causa justificada alguna, se interrumpe o cesa por un periodo de más de tres meses.

- El espacio asignado, su decorado, accesorios, y equipamiento deberán mantenerse en

eta ekipamenduak ondo funtzionatu eta itxura ona izan beharko dute denbora guztian.

todo momento en buen estado de funcionamiento y presentación.

Igarolekua:

- Enpresa baimenduak, igarolekua erabiliko du, eremuaren xedeari lotuta,; betiere, gainerako erabiltzaileen eskubideak eta eremuen funtzionamendu egokia kaltetu gabe, eta zentroak ezarritako erabilera irizpideak errespetatuta.

Zona de paso:

- La empresa autorizada hará uso de la zona de paso conforme a su destino, sin que ello suponga menoscabo de los derechos de las restantes personas usuarias y de su buen funcionamiento, de acuerdo siempre con los criterios de utilización establecidos por el Centro.

## 15.- BETEBEHARRAK ETA MUGAK

15.1.- Betebeharrak

Ezar daitezkeen gainerako betebeharrez gain, enpresa baimenduak honako betebehar hauek izango ditu:

a) Indarreko araudiaren arabera gauzatu beharreko jarduerei dagozkien kargak, baimenak eta zergak ordaintzea eta lortzea, eta horien guztien kopia bat entregatzea UPV/EHUri. Enpresa baimenduak izango du baimen eta lizentzia horiek eskatzeko ardura osoa.

b) Nahitaez, UPV/EHU aipatu beharko dute erabilitako publizitate sistemetan, baita proiektuaren edo jardueraren ondorioz sortzen diren euskarri guztietan ere. Logotipoen erabilerari eta gainerako forma alderdiei dagokienez, UPV/EHUren Marka Adierazteko Gidan ezarritakoa bete beharko da.

c) Gauzatzen duen jarduerari aplikatu beharreko araudia betetzea, bereziki,

## 15.- OBLIGACIONES Y LIMITACIONES

15.1.- Obligaciones

Sin perjuicio de cuantas otras obligaciones pudieran establecerse, la empresa autorizada está obligada a:

a) Disponer y satisfacer, a su exclusiva costa, las cargas, autorizaciones, impuestos y gravámenes que pesen sobre la actividad a desarrollar, de acuerdo con la normativa vigente, debiendo aportar una copia de las mismas a la UPV/EHU. La solicitud de dichas autorizaciones y licencias es responsabilidad única de la empresa autorizada.

b) Hacer mención específica a la UPV/EHU en cualquiera de los sistemas de publicidad utilizados, así como en todos los soportes que se deriven del proyecto o actividad de la empresa. En cuanto al uso y disposición de los logotipos y demás aspectos de forma, se estará a lo establecido en la Guía de Expresión de Marca de la UPV/EHU.

c) Cumplir la normativa aplicable a la actividad que desarrolla,

zergei, lan arloari eta Gizarte Segurantzari dagokienez.

d) Laneko higieneari eta segurtasunari dagokienez, enpresa baimenduak indarreko araudia bete beharko du. Horretarako, aurrez UPV/EHUren Prebentzio Zerbitzuak dagokion ikuskapena egin dezala eskatu beharko du, eta hark dagozkion gomendioak egingo dizkio.

e) Eskatutako kontabilitate eta administrazio arloko dokumentazioa ematea UPV/EHUri, enpresa ekimena pixkanaka sendotzen ari dela egiaztatzeko eta proiektuaren aurrerabide egokia oztopa dezaketen arazoak hautemateko.

f) Unibertsitateak eska dezakeen informazio guztia ematea.

especialmente en materia tributaria, laboral y de seguridad social.

d) En lo referente a higiene y seguridad laboral, la empresa autorizada deberá cumplir la normativa existente, para lo cual previamente deberá solicitar inspección por parte del Servicio de Prevención de la UPV/EHU, que efectuará las recomendaciones pertinentes.

e) Poner a disposición de la UPV/EHU la documentación contable y administrativa que le sea requerida, a los efectos de poder comprobar el nivel de consolidación que va adquiriendo la iniciativa empresarial y detectar los posibles fallos que puedan impedir la buena marcha del proyecto.

f) Facilitar cuanta información le pueda ser solicitada por la Universidad.

**15.2.- Mugak**

Enpresa baimenduak honako muga hauek izango ditu:

a) Esleitutako eremuen erabilera eskubidea pertsonala eta besterenezina da, eta ezin izango zaizkio beste inori alokatu edo utzi (ez osorik ez zati bat), ezta dohainik edo aldi baterako ere.

b) Ezin izango dira jarduera hauek gauzatu:

o Segurtasun edo higiene arauetan debekatutako edozein material bertan uztea, erabiltzea edo manipulatzea.

o Jarduera arriskutsuak, osasungaitzak, kaltegarriak edo beste erabiltzaileen lana kaltetu dezaketenak gauzatzea. Mintegiko

**15.2.- Limitaciones:**

A la empresa autorizada le serán de aplicación las siguientes limitaciones:

a) El derecho de uso de los espacios asignados es personal e intransferible, no pudiendo ser subarrendados ni cedidos en todo o en parte, ni siquiera a título gratuito o temporal/puntual.

b) Las siguientes actividades:

o El depósito, uso o manipulación de cualquier material no permitido por las normas de seguridad e higiene.

o Aquellas que puedan considerarse peligrosas, insalubres, nocivas o que perturben la actividad de los restantes ocupantes. El uso de cada espacio del Vivero no debe

eremuak erabiltzean, bertan egindako jarduerek ez dute inolako eragozpenik sortuko, ezta salbuespen kasuetan ere.

- Ezin izango da baimena ematerakoan aurreikusi gabeko moralaren, ordena publikoaren edo ohitura onen aurkako jarduerarik gauzatu Mintegiko edozein lekutan, ezta agerraldi politiko, sindikal eta/edo erlijiozkorik antolatu ere.

- Oro har, baimendutako enpresak ez du zentroko giroa aztoratu behar, gainerako erabiltzaileak kaltetu ditzaketen zaratak, bibrazioak, usainak, tenperaturak edo beste edozein arazo sortuz.

implicar molestia alguna, aunque fuere excepcional, derivada de las actividades que se desarrollen en el mismo.

- La práctica en cualquier parte del Vivero de actividades no previstas a la hora de conceder la autorización, contrarias a la moral, al orden público o a las buenas costumbres, y la organización de cualquier tipo de manifestaciones políticas, sindicales y/o religiosas.

- De forma general, la empresa autorizada no debe en forma alguna perturbar el ambiente del Centro mediante ruidos, vibraciones, olores, temperaturas o cualquier otra causa que pueda afectar o producir molestias a los restantes ocupantes.

**16.- UNIBERTSITATEAREN SEGIMENDUA ETA IKUSKAPENA**

Sei hilez behin, Mintegiko eremuen erabilera baimenaren segimendua egingo da. Horretarako, baimendutako enpresak bere burua defendatzeko jarduera txosten bat entregatu beharko du UPV/EHUk izendatutako pertsonekin egingo duen bilkuran. UPV/EHUk ez ditu ezagutzera emango txosten horietan edo bilkuretan aipatutako datuak eta informazioa, eta dokumentu horiek babesteko konpromisoa hartuko du.

Era berean, esleitutako eremuen erabilera eta egoera egiaztatzeko, UPV/EHUk horiek aztertzeko ahalmena izango du. Enpresa baimenduak Unibertsitateak horretarako egingo dituen bisitaldi guztiak onartu beharko ditu.

**16.- SEGUIMIENTO E INSPECCIÓN UNIVERSITARIA**

Semestralmente se realizará el seguimiento de la autorización de uso de espacios del Vivero. Para ello, la empresa autorizada deberá entregar un informe de actividad para su defensa en el correspondiente encuentro con las personas designadas por la UPV/EHU. La UPV/EHU no revelará los datos e informaciones que se contengan en los mencionados informes, reuniones, etc., comprometiéndose a custodiar los documentos.

Asimismo, para comprobar el uso y estado de los espacios asignados, la UPV/EHU se reserva la facultad de inspeccionar los mismos, debiendo la empresa autorizada permitir las visitas que la Universidad promueva a tal efecto.